



**2022KO MARTXOAREN 7KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko martxoaren zazpian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2022ko otsailaren 21ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2021eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 90 zk.dun fakturen zerrenda, MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA BEDERATZI euro ETA LAUROGEITA BOST zentimo ===== (1.789,85 €)takoa eta 2022ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 8 zk.dun fakturen zerrenda, HOGEITA HAMAIIKA MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA SEI euro ETA BERROGEITA HAMAR zentimo (31.586,50 €)takoa, bere espedienteetan daudenak, onartzea erabaki da.

III.- GIPUZKOAKO EROSKETA ZENTRALAREN BIDEZKO KONTRATAZIOA, GAS NATURALAREN HORNIDURA.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakinarazi du, gas naturalaren hornikuntza kontratazeko kontratazio espedienteari hasiera ematera doala, esparru akordioaren prozedura bidez.

Honen aurrean eta kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeko hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek hornikuntza hau behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, zera erabaki du:

- 1.- Gipuzkoako Erosketa Zentralak hasitako gas naturalaren hornidurarako esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikitzea. Espediente hori Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak izapidetuko du, 2011ko martxoaren 17ko Udal Batzarrak onartutako atxikipen hitzarmenean ezarritako termino eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuan jasotako arauari jarraituz.

- 2.- Baimena ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari, erakunde honen gas naturalaren kontsumoaren datuak enpresa hornitzaileari eskatu eta horiek eskuratzeko, kontratazio espedientea arautuko duten baldintza agirietan jaso ahal izateko.
- 3.- Konpromisoa hartzea enpresa esleipendunarekin kontratu eratorria sinatzeko, Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.

IV.- ITURGAITZAGAKO 12. LURSAILAREN XEHETASUN AZTERKETAREN HASIERAKO ONARPENA.-

Agaunza Berri S.L.k, ARKILAN ARQUITECTOS ASOCIADOS S.L.P.k eta Jose M^a Abad abogatuak 2022ko otsailean idatzitako Iturgaitzagako 12. Lursailaren xehetasun azterketa aurkeztu du.

Dokumentuaren memoriak dionez, bere helburua "12. lursailaren lerrokadurak berantolatzea" da, bertan egiteke dagoen eraikigarritasunaren birbanaketa egin ahal izateko.

Txosten teknikoa nahiz juridikoa aldekoak dira, nahiz eta juridikoan adierazten den akatsak daudela eta akats horiek behin betiko onarpena eman aurretik zuzentzea eskatu beharko litzaiokeela.

Txosten juridikoak zuzentzea eskatzen denari buruz zera dio: "*Azterlanaren 7.a atalean adierazten da 12. lurzatiak 613,00 m²-ko azalera duela eta, 14. lurzatiaren eraikuntzan (eraikita eta erabiltzen ari dena) izandako desorekaren ondorioz, 13. lurzatian lekualdaketa bat gertatu dela, eta, horregatik, 12. lurzatian ere hori egitera behartzen du; beraz, azken horrek 609,00 m²-ko azalera du, eta horren barruan garatzen da Xehetasun Azterketa.*

..... zehaztaper hori ez da zuzena, eta egiaztatu egin da; beraz, kendu egin beharko da,"

Xehetasun azterketa hirigintza batzordean aztertua izan da.

Hau guztia kontuan izanda, eta gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, zera erabaki du:

Lehena.- Agaunza Berri S.L.k sustatutako eta ARKILAN ARQUITECTOS ASOCIADOS S.L.P.k eta Jose M^a Abad abogatuak idatzitako Iturgaitzagako 12. lursail eraikigarriaren xehetasun azterketa hau hasierako izaeraz onartzea, behin betiko onarpena eman aurretik txosten juridikoak dioenera egokitutako dokumentua aurkeztera baldintzatuta.

Bigarrena.- Dokumentua 20 egunetan jendaurreko erakustaldian edukitzea, interesatuek aztertu eta alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

V.- IDAZKARI POSTUA BEHIN BEHINGOZ BETETZEKO OINARRIEI ERREKURTSOA.-

Idazkari postua behin behingoz betetzeko oinarriak Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zituen 2022ko urtarrilaren 24ean egindako bilkuran, eta 2022ko otsailaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.



LAZKAOKO UDALA

2022ko otsailaren 16an, ELKARTU, Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzaileak, oinarri hauen aurkako berraztertze errekurtsioa aurkeztu du, eta bertan oinarrien hamalagarren oinarriari ondorengo paragrafo hau gehitzea proposatzen da:

"Desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko legez administrazio publikoentzat gordetako kuota iritsi arte edo, kuota hori handiagoa bada, negoziazioan ezarritakora iritsi arte, desgaitasuna duten langileen txanda mugatutik datozen zerrendak badaude, 3 kontratutik edo izendapenetatik 1 langile horien alde egingo da. Zerrenda horiek lehentasun-hurrenkeraren arabera erabili beharreko zerrenden osagarri gisa erabiliko dira. Muga berarekin, desgaitasuna duten langileen txanda mugatutik datozen zerrendarik ez badago, ahal dela kontratu edo izendapen kopuru bera egingo da langile horien alde. Administrazioako organo eskudunak langile horiek %33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortua izan beharko dute, eta ezarritako lehentasun-hurrenkeraren arabera erabili beharreko zerrendan sartuta egon beharko dute."

Gaia aztertu da eta ondorioa da oinarrien idazkeran ez dagoela inolako arau hausterik.

Gaia ogasun batzordean aztertu da baita ere.

Hau guztia honela, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, zera erabaki du: ELKARTU, Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzaileak, aurkeztutako errekurtsioa ezeztea, etorkizunean udal honek sortuko diren lan poltsetan elkarte errekurtsogileak eskatzen duena kontuan izatearen kalterik gabe.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko seiak hogeita bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

